

IDAZKARI OROKORRAREN 6/2017 TXOSTENA

Gaia: Hizkuntzaren erabilera Bermeoko Udalean

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuak -Toki Administrazioetako Gaikuntza Nazionaleko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautu duenak- 3. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik, hurrengo **TXOSTENA** igorri dut:

1. Aurrekariak

- Bermeoko Udalak herritarrei zuzendutako erabaki eta jakinarazpenak euskaraz egiten ditu, kontuan izan barik herritarrek aukeratutako hizkuntza.

Dena den, herritarrak horrela eskatzen badu, Udalak itzulpenak egiteko aukera ematen du.

- Kontratuetan, handietan zein txikietan, ezartzen da *udalarekin izango diren hartu-emonak, bai ahozkoak, bai idatzizkoak euskaraz egingo direla eta fakturak edo bestelako agiriak euskaraz aurkeztu beharko direla*. Gainera, esaten da Udalak ez duela itzulpenik egingo.

- Diru-laguntzetan kasuan eta baimenen kasuan, zera ezartzen da: *Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak arautzen dauenaren arabera, ekintzeagaz zerikusia daukien errotuluak, kartelak, oharrak, prezio zerrendak, sarrera txartelak... euskeraz idatziko dira. Seinalizaziorik ipini behar izatekotan be euskeraz ipiniko da. Derrigorrean euskeraz eta erderaz ipini behar izatekotan euskereari lehentasun osoa emongo jako, letra tamaina handiagoa euskereari emonez, kolorea eta abar erabiliz.*

Publizitatea be, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, euskeraz egingo da. Era berean, bozgorailua erabili behar izatekotan, euskeraz egingo da berba, eta informazioa derrigorrean, euskeraz eta erdaraz emon behar izatekotan, euskereari lehentasun osoa emongo jako, euskerea hiru aldiz gehiago erabilita.

Ekintzeagaz lotuta, herritarrei zuzendutako ahozko hartu-emonak euskeraz izateko aukerea egotekotan, euskerazko hautuari emongo jako lehentasuna. Musikarik ipintekotan, euskal musikearen presentzia bermatuko da. Ahal dala, lau abestitik bat euskeraz izango da.

Udaleko Euskera Sailak aholkularitzea eta laguntzea eskainiko deutsoz interesdunari hizkuntzearen inguruan, interesdunak halan eskatu ezkeru.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- 1992ko azaroaren 5eko Hizkuntza Erregionalen eta Gutxituen Europako Gutunarekin

- 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioa

- Abenduaren 18ko 3/1979 Arau organikoz onartutako Euskal herriarentzako Autonomi Estatutua

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea

- Apirilaren 7ko 2/2016 Toki Erakundeen Euskadiko Legea

- Azaroaren 24koa 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa Legea

- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak

- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena

- 1955eko ekainaren 17ko Toki erakundeen Zerbitzuen Araudia

- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra

2.2. Azterketa juridikoa



- Herritarrekiko harremanetan hizkuntzaren erabilera

Nahitaezkoa da hasiera 1992ko azaroaren 5eko Hizkuntza Erregionalen eta Gutxituen Europako Gutunarekin (2001eko otsailaren 2an Espainiak berretsitakoarekin). Gutun horrek 7. artikuluan helburu eta printzipioak ezarri ditu eta dio arlo publikoan erraztu eta/edo sustatutako dirala eskualdeko hizkuntza edo gutxienekoen hizkuntzak (d atala). Zentzu berean, Gutunaren 10.2. artikuluan ezarri da baimendu eta /edo sustatu behar dala eskualdeko edo gutxienekoen hizkuntzak hitz egiten dituztenak hizkuntza horietan ere eskaerak ahoz zein idatziz egiten.

Baina, Gutunean ezarritakoak ezin ditu urratu giza eskubideak (4. artikuluan ikus daitekeenez), ezta bereizikeriarik eragin hizkuntza dela-eta (14. artikulua).

Barne ordenamendua ikusita, ezinbestekoa da 1978ko Espainiako Konstituzioa aipatzea, non 3. artikuluan dioen gaztelania dela Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala, espainiar guztiek **jakin behar dutela eta erabiltzeko eskubidea dutela**. Konstituzioak gaineratu du espainiako **beste hizkuntzak ere ofizialak** izango direla haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutoei dagozkien eran.

Hori horrela, EAEko mailan, abenduaren 18ko 3/1979 Arau organikoz onartutako Euskal herriarentzako Autonomia Estatutua daukagu. Estatutuak 6. artikuluan dio euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango duela Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dutela **bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea**.

Beraz, ondoriozta genezake hizkuntzaren inguruan oinarrizkoa artikuluak konstituzioko 3. artikuluan eta EAEko Estutuko 6. artikuluan ditugula. Horietatik ondoriozta daiteke gaztelania ezagutzeko betebeharrak eta erabiltzeko eskubidea dagoela eta, ostera, euskara ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.

Guri dagokigunez, administrazio mailan, aipatzekoa da urriaren 30eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan, zeinek administrazio publikoekiko harremanetan pertsonen eskubideak arautzerakoan, zera dioen:

Quienes de conformidad con el artículo 3 , tienen capacidad de obrar ante las Administraciones Públicas, son titulares, en sus relaciones con ellas, de los siguientes derechos:

*c) A **utilizar las lenguas oficiales** en el territorio de su Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo previsto en esta Ley y en el resto del ordenamiento jurídico*

Prozedimenduetan erabili beharreko hizkuntza dela-eta lege bereko 15 artikulua dio:

*En los procedimientos tramitados por las Administraciones de las Comunidades Autónomas y de las Entidades Locales, el uso de la lengua se ajustará a lo previsto en la **legislación autonómica correspondiente** .*

Hortaz, EAEko araudira jo behar dugu eta apirilaren 7ko 2/2016 Toki Erakundeen Euskadiko legeak **bi hizkuntzen erabilpena bermatzearen alde egin du** berorien ofizialtasuna erregulatuz, eta berorien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziz. Baina, zehatz-mehatz adierazi da hizkuntza dela eta, **ez dela inor gutxietsiko**.

Alabaina, zioen azalpenean bertan gogorarazi da, alde batetik, euskal toki-administrazioaren euskalduntzearen **aldeko apustu irmo horrek ezin dituela inola ere ahaztu herritarren hizkuntza-eskubideak, herritarrek uneoro izango baitute hautatzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea eta bi hizkuntza ofizialetakoren bat ez jakiteagatik inolako babesgabetasunik ez nozitzeko eskubidea**.

Toki Instituzioen Euskadiko Legearen 6. artikulua adierazi du euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala, eta, alde horretatik, erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango dela. **Edonola ere, legeak argi eta garbi zehaztu du bermatu beharko dela herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-erakundeekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea eta, hortaz toki-erakundeek hizkuntza horretan artatzeko duten betebeharra, hartarako behar diren neurriak harturik**. Euskarari eta

gaztelaniari aitortutako ofizialtasunaren arabera, bai euskara toki-erakundeen ekintzetan erabiltzea, bai gaztelania ekintza horietan erabiltzea, balio juridiko osokoak izango dira, betiere eragotzi gabe **toki-erakundeek bermatu beharra daukatela, partikularrekiko harremanetan, horiek hautatu duten hizkuntza ofiziala erabiltzea.**

Toki Instituzioen Euskadiko Legearen 43. Artikuluak jaso du, udalerriko auzotarren eskubideen artean, **toki-administrazioarekiko harremanetan, hizkuntza ofizial bietatik edozein erabiltzeko eta aukeratutakoan artatua izateko eskubidea, herritarren hizkuntza-eskubideak arautzen dituen autonomia-erkidegoko legeriaren arabera.**

Beraz, azaroaren 24koa 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa Legea jo behar dugu. Lege horren 4. artikuluan esan da herri-agintek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta **inor diskriminatu ez dadin zainduko dutela eta neurri egokiak hartuko dituztela.**

Herritarren eskubide eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa Legearen 5. artikuluan zehaztu dira: **Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.**

Hain zuzen ere, Euskal Herriko herritarrei funtsezko hizkuntza-eskubide moduan aitortzen zaie **Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.** Herri-agintek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Zentzu berean, 6. artikuluan zehaztu da herritar guztiei aitortzen zaiela, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea, eta beren aukerako hizkuntza ofizialean hartuak izatekoa. Horretarako, neurri egokiak hartuko dira eta beharrezko baliabideak bideratuko eskubide hori arian-arian gauzatu dadin bermatzeko.

Pertsona batek baino gehiagok esku hartzen duen espediente edo prozeduretan, alde biek adostasunez erabaki dezaten hizkuntza erabiliko dute herri-agintek.



Adostasunik ez badago, espedienteari edo prozedurari hasiera eman dion pertsonak aukeratutakoa erabiliko da, beti ere, bakoitzak nahi duen hizkuntzan informazioa jasotzeko duen eskubidea gora behera.

*Azken atal hori (etzanez dagoena) konstituzioaren kontrakoa dela adierazi zen 82/1986 Konstituzio epaitegiaren epaian hurrengo arrazoiagatik: *ello supondría, por un lado, el romper la situación de igualdad de las partes en el procedimiento y, por otro, la vulneración de lo dispuesto en el art. 3 CE, cuando se excluyera el uso oficial del castellano, pese a ser la lengua elegida por una de las partes, sin que sea salvaguardia suficiente el derecho que se establece a ser informado en la lengua que se desee, lo cual nos conduce a declarar inconstitucional dicho inciso.**

Hortaz, argi ikusi da interesdunak aukeratzen duen hizkuntza bermatu behar dela, alderdien arteko berdintasunaren alde eta Konstituzioaren 3.artikuluaren errespetatzearen alde.

Erregistro publikoei dagokionean, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa Legearen 7. artikulua dio toki-administrazioen mendeko erregistro publikoetan dokumentuak lerrokatzea dokumentuok idatzita dauden hizkuntza ofizialean egingo dela.

Lerrokapenok erakusteko nahiz ziurtagiriak luzatzeko, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetatik edozeinerako itzulpena ziurtatuko da.

Legearen hasierako bertsioan zera esaten zen: *"Aurrekoan agindukakoa gora behera, herri-aginteek euskara bakarrik erabili ahal izango dute toki-administrazioaren esparruan baldin eta, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak direla-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira."* Baina atal hori konstituzioaren kontrakoa zela adierazi zuen Konstituzio Epaitegiak 1986ko ekainaren 26ko 82/1986 epaian. Epai horrek dio:

...Sólo del castellano se establece constitucionalmente un deber individualizado de conocimiento, y con él, la presunción de que todos los españoles lo conocen.

*Si es inherente a la cooficialidad el que, en los territorios donde exista, la utilización de una u otra lengua por cualquiera de los poderes públicos en ellos radicados tenga en principio la misma validez jurídica, **la posibilidad de usar***

sólo una de ellas en vez de ambas a la vez, y de usarlas indistintamente, aparece condicionada, en las relaciones con los particulares, por los derechos que la Constitución y los Estatutos les atribuyen, por cuanto vimos también que el art. 3.1 CE reconoce a todos los españoles el derecho a usar el castellano, y los Estatutos de Autonomía, en los artículos antes citados, ya sea de un modo expreso o implícitamente, el derecho a usar las dos lenguas cooficiales en la correspondiente Comunidad o parte de ella. En los territorios dotados de un estatuto de cooficialidad lingüística, el uso por los particulares de cualquier lengua oficial tiene efectivamente plena validez jurídica en las relaciones que mantengan con cualquier poder público radicado en dicho territorio, siendo el derecho de las personas al uso de una lengua oficial un derecho fundado en la Constitución y el respectivo Estatuto de Autonomía.

*En cuanto a la inconstitucionalidad material que el Abogado del Estado invoca, y que la parte vasca trata de salvar basándose en la necesidad de que existan zonas monolingües en euskera en cuanto que lengua minoritaria en situación diglósica, e independientemente del hecho de que haya hoy también otros medios de salvaguardar el euskera, es inexcusable, desde la perspectiva jurídico-constitucional a la que este Tribunal no puede sustraerse, señalar que la exclusión del castellano no es posible porque **se perjudican los derechos de los ciudadanos, que pueden alegar válidamente el desconocimiento de otra lengua cooficial.** Pues bien, el citado art. 8.3 prevé la redacción exclusiva en euskera, sin que logre reducir su alcance la genérica salvedad de no perjudicar los derechos de los ciudadanos, ya que este precepto es una excepción ("no obstante lo preceptuado anteriormente...") a los anteriores apartados del artículo, que disponen la redacción bilingüe de disposiciones normativas, resoluciones, actas, notificaciones y comunicaciones como regla general.*

Por ello, el art. 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de lo dispuesto en el art. 3.1 CE, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado, que resulta del art. 6 EAPV.

Horretaz gain, Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusiak, administrazioarekiko auzien gelak, 3. Sekzioak, 2001eko ekainaren 29an 683/2001 epai eman zuen. Kasu honetan, langileek salatu zuten diskriminazioa zegoela Sestaoko Udalean euskara ez erabiltzeagatik barne eta kanpo harremanetan, bi hizkuntza ofizialak ez erabiltzeagatik eta interesdunek aukeratutako hizkuntzan ez erantzuteagatik. Epaiak zera dio:...*Precisando asimismo que el derecho a ser atendido en euskera cuando sea en esta lengua en la que **se inicie e impulse el procedimiento es consecuencia lógica de la cooficialidad** y que, si bien el artículo 6.1 establece un derecho subjetivo a ser respondido en la lengua oficial elegida, cuando es distinta del castellano, deja un margen a los poderes públicos, en cuanto a las condiciones en que tal derecho puede verse efectivamente satisfecho, que se hacen depender de una progresiva adaptación de las respectivas Administraciones.*

Era berean, Epaitegi Gorena, 3. Gelak, 4. Sekzioak, 1999ko ekainaren 22an (errekurtsoa 5989/1993), dio:

En el tercer motivo de casación, aduce en fin el recurrente, al amparo del artículo 95, núm. 4 de la Ley de la Jurisdicción, que no concurre la vulneración del artículo 3.1, en relación con el 14, de la Constitución que ha apreciado la sentencia recurrida, pues el Ayuntamiento ha atendido a las exigencias derivadas de la **realidad socio lingüística** del término municipal de Lizartza, en el que el 95,50% son vasco parlantes y solo el 1,50% de la población no se incluyen entre los vasco parlantes, **sin que éstos hayan formulado queja** alguna, y procede rechazar tal motivo de casación, porque los artículos 4, 5, 17, 19, 20, 40, 42 y 44 de la Ordenanza disponen que **todas las actuaciones, diligencias y comunicaciones se harán en euskera, y es claro, que esa previsión expresa, infringe lo dispuesto en el artículo 3.1 de la Constitución**, que tras disponer que el castellano es la lengua oficial del Estado, declara que todos los españoles tiene el derecho a usarla y el deber de conocerla, pues además de que no toda la población es vasco parlante, como el propio Ayuntamiento reconoce, el artículo 3.1 de la Constitución, no dispone excepción alguna en su previsión, y por tanto su cumplimiento no admite excepción o interpretación que trate de eludir su cumplimiento, máxime, cuando **el Tribunal Constitucional** en la sentencia más atrás citada, de 26 de junio de

1986, ha deklarado que el uso por los particulares de la cooficialidad tiene plena validez, y ciertamente que ello no se cumple cuando se dispone sin más el uso exclusivo del euskera para todos en sus relaciones con el Ayuntamiento

Gainera, hizkuntza eskubideak ez bermatzeak **arazo praktiko ugari** dakartza Udaleko kudeaketa eta izapidetzan: hain garrantzitsuak diren epeak zenbatzeko orduan, jakinarazpenen balioan, segurtasun juridikoa kolokan jartzean, epaietan duen eraginean...Aipatzekoa da, besteak beste, jaso berri dugun Gernikako Lehen auzialdiko eta instrukzioko 4 zenbakiko ZULUPen 2017ko urriaren 30eko 118/2017 epaia, Bermeoko Udalak jarritako erreklamazio baten ingurukoa. Epai horretan esaten da: *“dicha carta redactada en lengua vasca, siendo consecuencia de la falta de traducción al castellano de dicho documento, como obliga el artículo 144 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, la ausencia de valor probatorio del documento no traducido”*


- Arau-xedapen eta ebazpen ofizial

Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa Legeak 8. artikuluan dio Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteek emandako **arau-xedapen zein ebazpen ofizial orok bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.**

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteek esku hartzen duten **egintza guztiak eta baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute**, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.

Era berean, 13. artikulua dio Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-aginteek erabili beharreko **inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiak** bi hizkuntzetan egon beharko dute.

Horretaz gain, Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusiak; administrazioarekiko auzien gelak 3. Sekzioak, 2001eko ekainaren 29an 683/2001 epaia igorri zuen. Horretan esaten da:



“...dentro de las comunicaciones escritas, habrá que distinguir entre las resoluciones o actos con destino genérico de aquéllas otras que son respuesta a escritos en los que, de manera expresa, **un interesado ha optado** por uno de los dos idiomas cooficiales, entendiéndose el sindicato recurrente que es en este supuesto donde se puede afirmar que estamos en el grado imprescindible de cumplimiento exigible del derecho a utilizar el euskera; de ahí que si el incumplimiento del derecho a utilizar el uso del euskera se traduce en la negativa de una administración a responder al interesado en el idioma expresamente utilizado por éste es entonces cuando, salvo razones excepcionales, cabe afirmar que **existe una vulneración efectiva e injustificada del derecho de un ciudadano a utilizar el euskera en sus relaciones con la Administración.**

De otra parte, y con respecto a las resoluciones o actos con **destinatario genérico**, **no cabe argüir hoy en día la falta de medios para la no publicación** bilingüe en la medida en que existen numerosos modelos de impresos y oficios bilingües, tanto en el mercado como en otras administraciones públicas vascas suficientes para que en ningún caso pueda sufrir retraso la publicación.”

- Kontratueta ezarritako hizkuntza baldintzen inguruan

Aurretik zehaztutakoaz gainera, kontratazioaren alorrean aipatu behar dira kontratazioaren oinarriko **printzipioak: publizitatea, lehiaketa, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminazio eza.**

Azaroaren 14ko 3/2011 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak, eta zentzu berean onartu berri den azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoen Kontratuaren Legeak, 1. artikuluan dio: *La presente Ley tiene por objeto regular la contratación del sector público, a fin de garantizar que la misma se ajusta a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores...*



Beraz, printzipio horiek bermatzeko ez da posible hizkuntza aldetik mugak jartzea.

Hala ere, kontuan izan behar da Toki Instituzioen Euskadiko legeak kasu zehatza arautu duela herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen **zehir-kudeaketa** moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko direla, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten **zerbitzu publikoetan** helburu hauek bermatze aldera: a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion **hizkuntza-legeria**. b) **Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen** duten hizkuntza ofizialean. c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren **administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan**.

Beraz, enpresek zeharkako kudeaketan zerbitzu publikoak ematen dituztenetan, hizkuntza-legedia bete behar dute eta herritarrekiko harremanetan udalari eskatu ahal zaizkion baldintzak bete behar ditu.

Bestelako kasuetan, aurretik aipatutako Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak auzi-administrazioko gelak, 1. Sekzioak, 2016ko ekainaren 13an 253/2016 epaiak, Eibarreko euskararen erabileraren inguruko udal ordenantzaren inguruan, dio:

*... impone a las empresas contratistas "los mismos requisitos lingüísticos que se exige a la Administración, y así se hará constar en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares", reglamentación que **ignora la regla de la cooficialidad y es incompatible con el régimen jurídico de la contratación pública.***

Zentzu berean, Epaitegi Gorena, 3. Gelak, 4. Sekzioak, 1999ko ekainaren 22an (errekurtsoa 5989/1993), dio:

Sexto.- Al exigir el artículo 7 de la Ordenanza que "los estudios, proyectos y trabajos similares encargados a terceros por el Ayuntamiento de Lizartza en



el ámbito del País Vasco Sur deberán ser entregados...únicamente en euskera", también discrimina a los que no hablan euskera, y reduce el número de los posibles colaboradores del Ayuntamiento con "detrimento del interés público al que la Administración debe servir, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 103 de la Constitución

Aurretik aipatutako Euskal herriko Auzitegi Nagusiak auzi-administrazioko gelak 1. Sekzioak 2016ko ekainaren 13an 253/2016 epaian, dio: *No se aprecia vulneración de la regla de cooficialidad en la redacción dada por la Ordenanza a su artículo 10 " Comunicaciones con entidades privadas y contratación de servicios ", por razón de que " los departamentos, comisiones de trabajo y comisiones consultoras que hayan adoptado el acuerdo de usar el euskera como lengua de trabajo enviarán en euskera la documentación a las entidades privadas, conforme se acuerde con las mismas"; basa de nuevo la abogada del Estado su impugnación en una lectura parcial del artículo, pues evita mencionar su primer párrafo que impone el envío a las entidades privadas de la documentación de uso general en bilingüe, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.2 de la Ley 10/1982; el párrafo transcrito, en tanto posibilita que las comunicaciones se realicen en euskera " conforme se acuerde con las mismas", hace efectivo el derecho de los sujetos privados a **elegir expresamente la utilización de una de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca**, establecido en el mismo artículo, pues sin su aquiescencia, esos Departamentos y Comisiones no pueden hacer uso exclusivo del euskera en sus comunicaciones.*

- Baimen eta diru-laguntzetan eskatutako hizkuntza baldintzen inguruan

Baimenen inguruan, aurrekoarekin batera, zehazki, 1955eko ekainaren 17ko Toki Erakundeen Zerbitzuen Araudiak 3. artikuluan dio *La intervención de las Corporaciones locales en la actividad de sus administrados se ajustará, en todo caso, al principio de igualdad ante la Ley:*



Diru-laguntzen kasuan, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 8.3. artikuluan diru-laguntzetan kontuan izan beharreko printzipioak zehazten dira, besteak beste, hurrengoak: **publizitatea, gardentaduna, lehiaketa, objektibotasuna, berdintasuna, diskriminazio-eza.**

Hori horrela, beren beregi aipatu behar dugu Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusiak kontentsioso-administratiboko Sailak, 1. Sekzioak, 2016ko otsailaren 4an 29/2016 epaia igorri zuen. Epaia horek Tolosako euskararen erabilera normalizatzeko ordenantzaren 30.artikulua baliogabetu zuen.

El artículo 30, apartado 1 de la Ordenanza municipal de Tolosa sobre normalización del uso del euskera, al que se contrae la cuestión de ilegalidad dispone: "En el momento de conceder subvenciones a sociedades de carácter cultura, deportivo o recreativo también se tendrá en cuenta el criterio lingüístico. En consecuencia, tanto las sociedades entidades como las personas jurídicas que reciban algún tipo de subvención del Ayuntamiento, tendrán que redactar y dar a conocer en Euskera o en Euskera y Castellano los escritos, anuncios, avisos y demás comunicaciones que publiquen en su actividad subvencionada, debiendo proceder de igual manera con la propaganda, bien sea oral o escrita, que deberá ser realizada en Euskera o en Euskera y Castellano. Asimismo, los mensajes emitido mediante megafonía en actos concretos deberán transmitirse en Euskera o en Euskera y Castellano. En las comunicaciones que se realicen en Euskera y Castellano y sobre todo en las realizadas oralmente se le dará prioridad al Euskera ya que quienes pudieren entender la comunicación en Euskera son personas bilingües. Todo ello conformará uno de los requisitos para poder recibir subvenciones, debiendo el destinatario cumplir obligatoriamente dicha condición para poder percibir la subvención."

Epai horretan esan da: **ese deber de conocimiento del idioma propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco no se compadece con el régimen de cooficialidad** establecido por el artículo 3.1 de la Constitución española (EDL 1978/3879) y por el artículo 6.1 I Estatuto de Autonomía del País Vasco, según la interpretación que ha hecho el Tribunal Constitucional

(sentencia 82/1986 de 26 de junio) del primero de los preceptos que se acaban de citar.

...

Por lo tanto, los ciudadanos o habitantes del País Vasco **no tienen el deber de conocer el euskera** que comporta el régimen lingüístico establecido por el artículo 30 de la mencionada Ordenanza de Tolosa.

En cambio, la prioridad que el artículo cuestionado de la Ordenanza reconoce al euskera en las comunicaciones bilingües no vulnera el status lingüístico de los castellanoparlantes ya que tal prioridad presupone el uso de las dos lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma y, por lo tanto, debe ser valorada como una medida de fomento de su lengua propia.

TERCERO.- Las alegaciones del Ayuntamiento de Tolosa no desvirtúan las razones que se acaban de exponer. En primer lugar, porque la cuestión planteada por el órgano de instancia no suscita la conformidad de la Ordenanza municipal con la Carta europea de lenguas regionales o minoritarias sino su disconformidad con el régimen de cooficialidad "euskera-castellano" al que nos acabamos de referir. En segundo lugar, porque las medidas de fomento o protección del euskera, inspiradas en la Carta europea de lenguas minoritarias o en el Estatuto de Autonomía del País Vasco (artículos 26 y 27) **no pueden establecerse en menoscabo de los derechos lingüísticos de los ciudadanos o habitantes de ese territorio o en perjuicio de su derecho a la igualdad en esa materia**, de rango constitucional (artículos 3-1 y 14 de la CE).

Más aún, la gestión de las subvenciones está sujeta, entre otros, al **principio de igualdad y no discriminación** (artículo 8.3 a de la Ley 38/2008) tal como ha invocado la defensa de la Administración del Estado, de suerte que cualquier medida de fomento o promoción del uso del euskera (o de cualquier otra lengua) debe preservar dicho principio.




*Por la misma razón, hay que declarar la nulidad del apartado d) de la misma cláusula porque la redacción de la **memoria exclusivamente en euskera** o en euskera y castellano vulnera el derecho de los castellanos parlantes a utilizar exclusivamente ese idioma en sus relaciones con las Administraciones Públicas, y en cuanto que solo les permite redactar la memoria en euskera les **impone el deber de conocer ese idioma** o de recurrir a quienes sepan usarlo por escrito en detrimento de su derecho a dirigirse al Ayuntamiento por escrito u oralmente en cualquiera de las lenguas oficiales.*

*Por último, también hay que declarar la nulidad del apartado d) de la misma disposición ya que más allá de cualquier ponderación de las circunstancias socio- lingüísticas del municipio o criterio de **discriminación positiva** en función de ellas reduce al 0 % el porcentaje de la subvención debida en aplicación del baremo en el caso de uso exclusivo del castellano; esto significa la vulneración de la regla de la cooficialidad pues comporta la exclusión de las asociaciones culturales o sociales que utilicen exclusivamente el castellano, ergo la exclusión de hecho de los vecinos que no conozcan ese idioma de las actividades fomentadas con el dinero de todos."*

Bestalde, aurretik aipatutako Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak auzi-administrazioko gelak, 1. Sekzioak, 2016ko ekainaren 13an 253/2016 epaiak, Eibarreko euskararen erabileraren inguruko udal ordenantzaren inguruan, dio:

Y lo mismo cabe decir de los artículos 14 y 15, que proyectan igual obligación, en esta ocasión respecto de todas las asociaciones y entidades, personas físicas o entidades jurídicas, por el hecho de recibir subvención municipal o por la sola utilización de espacios públicos, instalaciones municipales y material, respectivamente, sobre las que no recae el deber de conocer el euskera, según el repetido art. 8.2, así como el artículo 5.2, ambos de la Ley 10/82.

- Barne funtzionamendua



Barne funtzionamenduari dagokionez, toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak **euskaraz idatzi ahal izango dira**. Ahalmen hori baliatu ahal izango da –aipatu berri diren kasuetan–, baldin eta, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein **kideren eskubideak urratzen ez badira**, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean aurreikusitakoa ezertan galarazi gabe. Ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idazten direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak edo laburpenak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta Estatukoari, toki-araubideari buruzko oinarrizko legeriari jarraituz.

Toki-erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, –erakunde barruko, beste edozein administrazio publikorekiko edo, are, partikularrekiko harremanetan– **bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera gorabehera-, behar diren mekanismoak sortu beharko dituzte, herritarrek karga edo betebeharririk eragingo dieten inolako formaltasun eta baldintzarik gabe baliatu ahal izan dezaten komunikazioak beste hizkuntzan jasotzeko daukaten eskubidea.**

Beraz, artikulua horren arabera herritarrek ez dute zertan beren beregiko eskaerarik egin beharko gaztelaniazko itzulpena eskatzeko.

Bestalde, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak 4.artikuluan dio euskal herri-administrazioetako hizkuntz normalkuntza-prozesua hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du. Era berean, lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna ezarriko zaio

Hori ikus daiteke Toki Instituzioen Euskadiko Legearen zioen azalpenean. Hain zuzen ere, adierazi da euskara babestu eta normalizatzeko lana, lehenik, euskal botere publiko guztiei dagokiela, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Hala, lege honek, **zeinak uneoro errespetatzen baitu toki-araubidea**, aldeztu du, kasuan kasuko toki-erakundeak hala erabakitzen badu, **euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea**. Era berean, modu berariazko, funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek

eskumenak edukitzea euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, bai «ad extra», hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan, bai «ad intra», hau da, toki-erakundean bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin.

Planifikazio eskumen horri dagokionez, Toki Instituzioen Euskadiko Legearen 7. artikulua dio Udalei izendatzen zaiela, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu. Plan horiek onetsi eta agartzerakoan **kontuan izan behar dira instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.**

Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiak auzi-administrazioko gelak, 1. Sekzioak, 2016ko ekainaren 13an 253/2016 epaia igorri zuen. Eibarreko euskararen erabileraren inguruko udal ordennatzaren inguruan.

Pues bien, el artículo 6 de la Ordenanza, en el que primero repara la actora, aparece integrado en el Capítulo II sobre el " uso del euskera en el funcionamiento interno del Ayuntamiento" (arts. 5 a 8); ya en el precedente artículo 5 se recoge ab initio que " el euskera, junto con el castellano, será lengua en la que se dé servicio a los ciudadanos..", por tanto, con pleno respeto al régimen de cooficialidad establecido en el artículo 3.1 de la Constitución y el artículo 6.1 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, a lo que no empece que a continuación se disponga la adopción de medidas para que el euskera sea lengua de trabajo en el Ayuntamiento y sus organismos

autónomos, y que en el discutido artículo 6, al regular las comunicaciones orales, se diga que " Los departamentos, comisiones de trabajo y comisiones asesoras que hayan adoptado el acuerdo de usar el euskera como **lengua de trabajo** tendrán el euskera como lengua de uso habitual en las reuniones y conversaciones de ámbito laboral", y ello en tanto es previsión del funcionamiento "ad intra", que no afecta al derecho de los ciudadanos del País Vasco a usar cualquiera de las lenguas oficiales, reconocido en el artículo 5 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de normalización del uso del Euskera.

Tampoco se denota vicio de invalidez en el artículo 7 que establece que " todas las **comunicaciones generales dirigidas a la plantilla municipal** incluida en el plan de euskera deberán ser en euskera o en euskera y castellano", toda vez que se dirige a un colectivo específico conocedor del euskera, sin excluir el derecho de los castellanoparlantes a recibir las comunicaciones en castellano o en euskera y castellano.

3. Ondorioak

- Argi dago Bermeoko Udalak euskara babestu eta normalizatzeko lana egin behar duela, baina beti ere herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz eta hizkuntza dela-eta inor ez gutxietsiz, ezta bereizkeriarik sortuz.

Hori dela-eta, hizkuntza eskubideak bermatu eta herritarrek aukeratutako hizkuntzan izapidetu behar dira espedienteak. Ezin da izan karga bat norberak aukeratutako hizkuntzan erabaki edo jakinarazpenak jasotzea.

- Bermeoko Udaleko herri-aginteeek emandako arau-xedapen, ebazpen ofizial, inprimaki edo idazki-eredu ofizialak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dira. Administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dira, salbu eta interesdun partikularrek Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat berariaz erabiltzea aukeratzen badute.

- Kontratazio, diru-laguntza eta baimenen kasuetan hizkuntza irizpideak eskatzean kontuan izan behar da ez gutxiestea inor eta berdintasun printzipioa

bermatzea. Hortaz, justifikatutako eta jurisprudentziak onartutako kasuetan izan ezik, ezingo da inor behartu aipatu diren hizkuntza irizpideak betetzera.

- Udalak burututako planek, bai ad extra, bai ad intra, kontuan izan behar dituzte erakunde komunetatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak. Zentzu berean, Udal ordenantzek errespetatu behar dute ordenamendu juridikoak dioena.

Bermeoko Udaleko mendeko erregistro publikoetan dokumentuak lerrokatzea dokumentuok gutxienez idatzita dauden hizkuntza ofizialean egin beharko da.

Hori guztia euskara Bermeoko Udaleko lan-hizkuntza izatea kalterik gabe.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatetzak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2017ko azaroaren 17an

Idazkari orokorra,

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari orokorraren 6/2017 Txostena jasota

2017ko azaroaren 24an

Euskera Saileko zinegotzi delegatua,

Juan Karlos Agirre Santa Maria

Alkatea,

Idurre Bideguren Gabantxo

